



Hydrosense

MERKATU SEGMENTAZIOA

Nortzuk dira gure bezeroak

Gure bezeroak nekazariak, ekoizleak eta negutegien kudeatzaileak dira, uraren erabilera optimizatu eta laboreen produktibitatea hobetu nahi dutenak. Ureztatzea kudeatzeko irtenbide teknologiko iraunkorrak ezartzeko interesa duten nekazaritza-kooperatibak eta nekazaritza-industriako enpresak ere sar daitezke.

Zeintzuk dira bezero horien ezaugarriak?

Nekazaritza intentsiboan edo negutegiko nekazaritzan diharduten pertsonak edo erakundeak, non uraren kontrola funtsezkoa baita ekoizpena mantentzeko.

Eraginkortasunarekin eta jasangarritasunarekin kezkatuta, kostuak, baliabideen kontsumoa eta horien ingurumen-inpaktua murriztea dute helburu.

Eremuari aplikatutako teknologian interesa dutenak (AgTech), erabakiak hartzea erraztuko duten tresna digitalak edo automatizatuak txertatzeko prest daudenak.



Sinpletasuna eta fidagarritasuna bilatzen dute, erabiltzeko errazak diren soluzioak nahi dituzte, ezagutza tekniko aurreratuak behar ez dituztenak.

Klima-aldaketaren kontzientzia dute, eta ulertzen dute kudeaketa hidriko arduratsuen garrantziaz.

Familiako nekazaritza-ustategi txikietakoak nahiz nekazaritzako elikagaien enpresa handietakoak izan daitezke.

